

# bidegileak



**Polixene Trabudua (1912)**

Egilea:

**ELIXABETE GARMENDIA**

Esusko Alderdi Jeltzaleko mitinlari ospetsu izan zen 36ko gerraren aurretik, Haydée Agirre, Julene Urzelai eta Maria Teresa Zabalarekin batera, emakumezko laukote famatuko kide. Eta mitinlari zela Athletic-eko jokalaria ezagun batekin ezkondu zen, garaiko kronika sozialetan jasota geratu ziren ezteietan. Horrela, berez zekarren izen artistiko horri, Polixene Trabudua, beste puska sonoro bat erantsi zion, Mandaluniz: Polixene Trabudua de Mandaluniz, urte haietako modari jarraituz esan ohi zen bezala.

Gerrak ez du barkatzen, eta zoriontsu eta aise izan behar zuen bizimodu hura errotik ebaki zion: erbesteratzea, lehendabizi Frantzia aldera eta gero Venezuelara. Bidean ez zuen, hala ere,

adorerik galdu eta Polixenek bizitzaren bigarren zatia ere bete-betea egingo zuen, irakasle modura lan eginez, baita Venezuelako kartzela gogorretan ere. Abenturetako nobela baterako adina gorabehera eta pasadizo bizi izan ditu eta gainera horiek idatziz kontatzen jakin du, gertakizunak sentipenetatik erantzit gabe. Bere testigantzak, ikuspegi eta bizipen pertsonaletik haratago, belaunaldi oso baten kronika sentimentala marrazten du, Caribeko beroak indartutako pintzelada inpresionistekin. Munduan zehar burua tente ibilitako emakumea Txorierrin jaio zen, Sondikan, 1912an.



Polixene Trabudua (1912).

## Sondikako andereñoa

Sondika baserri giroko herria zen mende hasiera hartan. Artxandaren bestaldera gertzen zen Bilbo, hiriburua, bi munduak bereiziz. Polixeneren familia giroa bi baserrik markatzen dute. Amaren aldetik *Goiri* baserria, aitarenetik *Gaztañaga*, Loiukoa. Ama, Maria Agirrezabala, *Goiri* baserriko Landatarrek inklusatik jasoa zen; ezkontzatik kanpora jaioa, aitik errekonozitu eta abizena eman zion, baina ama ezezagun geratu zen. Nolanahi ere, etxekotzat hazi zuten *Goirin* Maria Agirrezabala. Sanjoanetan ezagutu zuen Prudentzio Trabudua, Loiukoa. Maria jostuna zen eta Prudentzio berriz igeltseroa, lauzpabost gizoneko taldea zuzenduz eraikuntzan jarduten zuena. Oso gazterik ezkondu ziren biak, Prudentziok Sondikan bertan altxa zuen etxe berri batera. Hor jaio zen Polixene 1912ko irailaren 23an. Hirugarren umea zen, baina bere aurreko biak, mutilak, erditzean hil ziren. Neskatoa jaio zenean, bizirik baina larri samar, elizara eraman zuten lehenbailehen, bataiatu eta arima behintzat salbatzearren. Kinka hartan, ez zitzaien ba izena jartzea ahaztu... Aita etxetik elizara itzuli berriro eta apaizari galdegin zion izenaz; hark, apaizak, nonbaitetik atera zuen hain bakana den hori: Polixena. Eta honela, linbora joateko batere asmorik gabe jaiotako haurrak greziar izen horrekin egin zuen aurrera.



Polixene bi urterekin.

Zazpi urte zituela hasi zen eskolan neskatoa, Sondikan bertan. Hamar urterekin berriz, Bilboko Ronda kalean zegoen Hijas de la Cruz-en ikastetxera bidali zuten gurasoek Polixene. Egunero trenez egiten zuen joan-etorria, gero Eskola Normalean sartu zenean bezala. Ikasleak, emakumezkoak behintzat, hiru besterik ez ziren Lezamako tren hartan, eta esnezaleekin batera egiten zuten Bilbotik etxerako bidea. Polixenek ez ditu sekula ahaztu tren hartako bidai zaratatsu eta alaiak. Matematiketan txarra izanik, arratsaldeetan akademia batera joan behar izaten zuen gai hura jorratzera. Halakoetan, eguerdian aitarekin bazkaldu ohi zuen, Retolaza jatetxean.

Sondikako neskak, beraz, Bilbon botatzen zuen askotan eguna, goizean goizetik Santos Juanesen elizan meza entzunda. Ikasketak amaitzean, Sondikan bertako ikastolan izan zuen lana. Baina aurretik, bere bizitzako gizonaren arrastoan jarri zen.



Lehen jaunartzea.

## **Futbolariaz maitemindua**

Txorierriko gazteen bilera tokia –dibertsiorako bilera– Asuako *Jolasa* zen. Han, igande arratsaldeetan, dantza egoten zen. Patio moduko bat, bi etxeren artean; mahai gainean igota, soinujolea eta panderojolea. Doinuak, biribilketa eta pasodobleak. Gizontxo batek dantzan ari ziren bikoteetako mutilei sorbaldan jo eta txakur handia kentzen zien piezako. Dantzan ari ziren mutilek bakarrik ordaintzen zuten.

Polixene Magisteritzako hirugarren kurtsoan zegoela, 16 urterekin, lagun batzuek *Jolasera* gonbidatu zuten. Amaren baimenarekin, hara abiatu zen Polixene Sofia eta Elena Nanclaresekin. *Jolasera* iristean, Elenaren emozioa: han datoz moto banatan bi mutil galant. Motoak gelditu eta biltzen dira bi mutilak nesken hirukotearekin. Berriketari ari direla, mutiletako batek, Josek, Polixeneri galdera: «Dantzan egingo al dugu?». Neska zurbil, zahar eta ausartaxeagoa zen Elenak bultzatu behar izan zuen pistara irteteko. Pieza osoa hitzik egin gabe, emozioaren emozioz. Etxera bueltan, oinez, mutilak motoak alboan ziztuztela, jakin zuen Polixenek dantzara atera zuen hura Jose Mandaluniz zela, Galdakaokoa, Athletic-eko jokalaria.



Lagunekin, Polixene eskuinetik lehenengoa da.



Biharamunean bertan izan zuen haren berri gehiago. Magisteritzako klasean zegoela Galdakaoko neska batek kartazal bat ematen dio. Komunera irten, eta hantxe irakurri zuen Polixenek gutuna: maitasun aitorpen samur eta ederra. Komunetik bueltan mandatariak Mandalunizen albiste zehatza eman zion: mutil ona zela eta Galdakaoko neska asko zebiltzala haren atzetik. Astea luze egin zitzaion Polixeneri. Hurrengo igandean Asuako Jolasera berriro, bihotza saltoka. Moto hotsa, eta han dator Mandaluniz zuzenean: «Dantzan egingo al duzu? Jaso al duzu nere gutuna?».



Baserritarrez jantzita, lagun batekin.

Polixenek ez zion lehenengoan baiezkoa eman. Ikasketak amaitu arte behintzat ezin izango zuela senargairik hartu, gurasoek ez ziotela utziko. Mandalunizek erdibide praktikoa aurkitu zuen: astegunetan Bilboko akademiatik trenera laguntzea besterik ez ziola eskatzen. Hori adostu eta bost urtez iraungo zuen ezkongai aldia hasi zen. Tartean trabaren bat izan zuten. Kurtsoa bukatzean Loiolara bidaltzen zituzten ikasleak, gogo jardunetara. Aita Laskibar jesuita izaten zuten zuzendari. Hark, senargaia izateko gazteegia zela eta Mandaluniz uzteko esaten zion Polixeneri. Honek asmoa hartu bai, baina bihotzaren jorerari ezin izan zion kontra egin. Harremanak aurrera egin zuen, ezkontza bidean.



Mitinlaria eta futbolaria ezkontza egunean.

## Modako ezteia

Horrela bada, Polixenek 21 urte betetzen zituen egun berean, 1933ko irailaren 23an, ezkondu ziren Begoñako basilikan Polixene Trabudua eta Jose Mandaluniz Ealo. Ezteiak ez ziren nolanhikoak izan. Txistulari eta danbolinteroak, ezpata-dantzariak, berrehun gonbidatu Artxandako *Jauregizar* jatetxean bazkaltzen... Begoñako elizatarian ateratako argazkian jende dotorea ageri da: gizonetzkoak gorbataz, emakumezkoak sonbreroz... Jose Mandalunizen ama berriz burutik oinetaraino beltzez, alargun gisan. Kontrastean, Polixenek zeraman andregai soineko zuria, printzesa eta halakoren ezteietan gertatzen den bezala,

jendearentzat hizpide izan zena baita Bizkaitik kanpora ere. Horrek ematen du ezkontzak izan zuen sonaren neurria. Ez zen gutxiagorako: Artetaren Pitxitxi koadroko bikotea balira bezala, emakume mitinlaria eta Athletic-eko aurrelaria ezkontzen ziren, euskal munduko bi pertsonaia famatu. Abertzaletasuna puri-purian zegoen, modan ere bai, Polixenek berak aitortzen duenez, eta Bilboko Athletic ekipo nazionala zen. Eztei bidaia ere garai hartarako luxuzkoa egin zuten Polixenek eta Mandalunizek: Donostiako Maria Cristina hotelean gaua pasa eta handikartzelona, Mallorca, Valentzia eta Madrilera. Itzuleran Sondikan jarri ziren bizitzen, Prudentzio Trabuduak eraikitako etxean.



Familia eta lagunekin, Begoñako basilika aurrean.



### **Lauaxetak fitxatua**

txetik ez zuen giro abertzalea bizi Polixenek. Aita monarkikoa zen, noizbait, Polixene umea zela, abertzaleren bategandik jipoia hartutakoa ere bai. Polixene Jose Mandalunizen eraginpean hasi zen abertzaletzen. Hura bai, hura nazionalista zen familiatik. Elkarrekin ibiltzen hasi zirenean, Primo de Riveraren diktadura garaian, abertzaletasuna gora zihoan. Gazteentzat erakargarria gertatzen zen oso joera hura, politika hutsetik haratago, kultura eta harremanen aldetik sare aberatsa eskaintzen baitzuen: *Mendigoizaleak* zirela, *Emakume Abertzale Batza*, antzerkiak... Polixenek aitortzen du giro horrek eta historikoak izango ziren



Haydée Agirre, M<sup>a</sup> Teresa Zabala, Polixene eta Julene Urzelai, 1934ko otsailaren 5ean, Bilboko Euskalduna pilotalekuan.

gertakizunek –adibidez Bilbon 1932an ospatutako lehen Aberri Egunak– eraman zutela abertzaletasunean konprometitzera, Mandaluniz bera baino barrurago sartzeraino.

Ikasketak amaitu bezain azkar Sondikako ikastola sortu berrian andereño izendatu zuten, eta han jardun zuen ezkondu aurretik nahiz ondoren, gerra lehertu arte. Euskarako klaseak ematen ere aritu zen, iluntzetan, Bidebarrieta kaleko batzokian. Han zeukaten egoitza, besteak beste, *Emakume Abertzale*

*Batzak* eta *Euzko Gaztedik*. Polixenek gazteeni irakasten zien eta aurreratuagoi berriz Lauaxetak. Eginkizun horretan lankide ziren beraz biak, eta lagun. Eta hain zuzen ere, Lauaxetak fitxatu zuen Polixene mitinlari modura. Beste mitinlariren batek –Sorne Unzueta ote zen– huts egin zuela eta, haren ordeztu Urduñako batzokiaren inauguraziora Polixene joatea proposatu zuen Lauaxetak. Baita joan ere, eta horrela hasi zen Trabuduaren karrera hizlari modura.

Haydée Agirre, Julene Urzelai, Maria Teresa Zabala, Polixene Trabudua, hortxe gerra aurreko emakume hizlarien laukotea, ez ziren bakarrik, baina bai ezagunenak. Garai hartarako ikasiak, erakargarriak, sentimenduz beteak... politika konbentzionaletik haratago, jende xumearengana iristeko dohain aparta zuten, eta horrela abertzaletasunaren hedatzaile bikainenetakoak izan ziren. Hori bazekiten alderdikideek eta agintariei ere ez zien ihes egin.



M<sup>a</sup> Teresa Zabala eta Haydée Agirrerekin,  
laurogeiko hamarkadan.

## Larrinagako kartzelan

1933ko urtarrileko goiz hotz batean, Polixene eskola ematen ari zela, gelditzen da Sondikako ikastola aurrean auto beltz handi bat. Txoferra barruan utzi eta jaisten dira hiru gizon, gabardina eta sonbrerodunak. Poliziak ziren eta andereñoaren bila zetozen. Umeak bakarrik utzi eta han eraman zuten Polixene Indautxuko komisaldegira. Bertan zegoen iada Haydée Agirre, bere herrian, Santurtzin, atxilotua. Poliziek, sartu biak kamioneta ofizial batean, eta ez deklaraziorik hartu eta ez besterik, han daramatzate goardia uniformedun eta guzti Larrinagako kartzelara, Amilibia gobernadore zibilaren aginduz. Arrazoia, nonbait, mitin batean independentziaren alde aritu izana.

Hamabost egun egin zituzten itzalean Haydée eta Polixenek. Argazki bat geratu da historiarako, bi emakumeak burdinazko hesiaren atzetik ageri direnekoa. Errepublikako agintari ez zien mesede handirik egin bi mitinlari haien espetxeratzeak, alderantziz, abertzaleen aldeko propaganda bihurtu zen kartzelaldia. Egunkariak argazki eta guzti ematen zuten haien berri, eta jendeak sinpatia guztia azaltzen zien Larrinagara opariak bidaliz. Askatu zituztenerako ospakizuna prestatu zuten jeltzaleek. Autobus bat hartuta joan zitzaizkien harrera egitera. Denen buru, Polixenek gogo-



Larrinagako espetxean, Haydée Agirrerekin.

ratzen duenez, lehen ilarako pertsonaiak: Eli Gallastegi, Anton Irala, Basaldua, Taramona, Julio Yanke, Sota, Lauaxeta... Eta haiekin batera Martin D' Ambroise, Irlandako Gobernuko kidea, Valera presidentearen laguna. Meza eta guzti ospatu zuten kartzelaldiaren amaiera. Kantuan, «Goiko mendian edurra dago...». Izan ere, halaxe, elurra ari omen zuen urtarri-leko egun hartan.



Larrinagatik irtetzean, harrera jendetsua.

## **Bermeotik Nafarroara**

Larrinagan egon ziren bitartean bermeotarren bisita izan zuten Haydéek eta Polixenek. Gau batean, hara non esnatzen diren kaletik datorkien kantu hotsarekin: «Jeiki jeiki euskotarrak, laister dator eguna...». Arrantzale bermeotarrak, itsasotik bueltan, bi emakumei animoa ematera joanak. «Bermeotar zoroak!», Polixenek sinpatia guztiaz esaten duen bezala. Bermeoko odolberoeak ez zeuzkaten ahazteko mitinlariak. Hauek herrian utzitako arrastoaren seinale dira Bermeon 1932 inguruan jaiotako *Haydée* eta *Polixene* izeneko emakumeak.

Baina Euskal Herrian zehar mitinlari gisa burututako ibilien artean Polixenek Nafarroara egindako jira gogoratzen du bereziki. 1933ko uda zen, hartu auto batzuk eta autobusa, eta komitiba osoa joan zen bizpahiru egunez Nafarroan goitik behera. Jose

Antonio Agirre buru, Irujotarrak –Manu, Pello eta Mirentxu– bide erakusle, eta Julene Urzelai eta Polixene emakumezko hizlaritan. Baztango ballea, Lizarra, Tafalla, Tuter... Bidaia eskursio modura ere gogoratzen du Polixenek, Nafarroa aldenik alde, hezetik lehorrera, ezagutzeko aukera paregabea. Aurretik «Viva España» esaten zuen asko abertzaletu omen zituzten kanpaina hartan. Mugimendu abertzalea bere onenean zegoen. Oraindik ez zegoen gerra hotsik.

Hurrengo hiru urteak gertakariz beterikoak izan ziren Polixenerentzat. Ezkondu eta berehala haurdun gelditu eta 1934ko ekainaren 7an jaio zen alaba, Eguzkiñe. Urtebetera, 1935eko uztailaren 7an, semea izan zuen, Joseba. Tarte horretan ama hil zitzaion, Maria Agirrezabala, eta senarra berriz, Jose Mandaluniz, Bartzelonara joan zen, Españolen jokatzera.

## Idazle sutsua

Mitinetan izan behar zuen su eta garraren isla, Polixenek *Jagi-Jagi* aldizkarian idatzitako artikulua. 1932ko urrian ageri da lehenengoa, eta 1936ko martxoan azkena. Hamarren bat artikulua guztira, zein baino zein zirikatzaile eta beroagoa. Gaztelaniaz idatziak, hizkeraren aldetik adierazkorrak dira oso, bihotzetik sortuak. *Jagi-Jagi* Eusko Alderdi Jeltzaleko talde erradikalenen aldizkaria izanik, Polixene ez da batere kamusten hor idazterakoan. Artikuluetako batzuk gizatalde zehatzei zuzenduta daude, hala nola *Mendigoxaleei* –hau da, *Mendigoizale Bazkunak* biltzen zituen gazteei–, gazteei oro har kontuak eskatuz beren axolagabekeriarengatik, edo amei, umeak abertzaletasunean hezteko duten erantzukizunarengatik. Gertaera jakinetatik abiatuz, diruzalekeria eta injustizia salatzen ditu beste idatzi banatan. Lehenengo argitaratua 1839ko Foruen galtzea deitoratzen du, eta 1934an idatzitako «Jagi-Jagi» izenburua daramana borrokarako irrintzia da batez ere. Haydée Agirrerekin Larrinagako kartzelan egon zen bitartean beste pare bat argitaratu zituen, bata andereñorik gabe geratu ziren umetxoei zuzendua eta bestea berriz espetxera Sabino Aranaren erretratua bidali izana eskertuz. Sabinzale aitortzen du bere burua erabat. Baina ideologiaren aldetik artikulurik ausartena hauxe da: «Soy revolucionaria», 1934ko urtarrilaren 13an argitaratua. Idatzi



Berneon, 1932an.

horretan Gandhiren bidea aldarrikatzen du bete-betean, gaur egun desobedientzia zibila deitzen zaionaren alde azalduz. Puntuz puntu garatzen du gainera nola zertu litekeen desobedientzia zibil hori. Kontuan hartzekoa da Gandhiren dotrina oso berria zela artean, eta beraz hori ezagutu eta bere egiteak Polixeneren irekitasuna frogatzen du. Tamalez, bila-kaera politikoa ez zen joan Gandhiren dotrina aplikatzeko moduan. Artikuluetan behin eta berriz aipatutako odol beroaren beharra odol isurketa bihurtuko zen laster. 1936ko uztailaren 18ak bueltarik gabeko mugarria jarri zion historiari.



Gernikan, andereño eta irakasleen bilera batean.



Gerrako oroitzenak gogoan.

## Aitzol paisanoz

Galtza *milrayasak*, alkandora deportibo zuria eta gerriko gorria, sotana erantzi eta horrela jantzita ikusi zuen Polixenek Aitzol uztailaren 19an, *Euzko Gaztedik* Donostiako Bulebarrean zeukan egoitzan. Hizkuntza gutxituei buruzko kongresu batean parte hartzera joana zen Trabudua Donostiara, beti ere Alderdiaren eskutik eta beste jeltzale batzuk lagun zituela: Manu Sota, Genaro Egileor eta abar. Ezustean eta etxetik kanpora harrapatu zituen beraz Francok Marokon hasitako altxamenduak. Ordurako bazebiltzan hotsak, urte eta erdi lehenagotik ere bai, Armada Errepublikako Gobernu botatzeko prestatzen ari zela. Horratx zurrumurrua egia bihurtuta. Etxerako itzulera ez zen samurra izan. Donostia eta Bilbo arteko tren zerbitzua etenda zegoen, eta pare bat egun itxoin behar izan zuten bizkaitarrek Donostiako hotelean harik eta Amarako geltokitik ustez Eibarrera armak eramatera zihoan trenean abiatu arte.

Hala ere, Eibarren gelditu gabe Atxuriraino eramán zituen trenak. Handik, Lezamako trenean, etxera. Zorionez senarra ere han zegoen, Bartzelonatik itzulita.

Noraezeko egunak zetozen. Eli Gallastegi Euskal Armada bat sortzearen aldekoa zen. Ajuriagerrak ez omen zion entzun nahi izan. Nafarroatik berri txarrak, abertzaleen fusilamenduak eta abar. Sondikan komite bat sortu zuten, lau nazionalistak, bi sozialistak eta anarkista batek osatua. Komite horrek ihesi zebilen Sondikako alkate karlista harra-patzeko erabakia hartu zuen. Aureliano Urrutikoetxea zen hau, Polixeneren osaba. Norbaitek abisua eman eta salbatu zen. Egun haietako giroa honela kontatzen du Polixenek: «Oso zaila da gerrak iraun zuen bitartean familian eta herrian bizi izan genuen aldarteaz azaltzea. Erraietaraino, odolerraino sartutako izua. Zurrumurruek, eta irratitik faxistei buruz entzutzen genituen berriek odola izoztu egiten ziguten».



«Gernikako bonbardaketaren ondoren zabaldu zen isiltasun hura geratu zait oroienean betirako».

## Senarra gudari

1936ko urrian sortu zen Eusko Gudarostea. *Jagi-Jagi*-koek bi batailoi osatu zituzten, *Lenago il* eta *Zergaitik* ez. Jose Mandaluniz bi batailoi hauen arteko enlaze modura jarri zuten, mototan zeukan abildadea kontuan hartuta. Sondika helburu militarra zen, bertan baitzegoen ordurako Bizkaiko aireportu bakarra. 1937ko apirilaren hasieran, Sondikako aireportura zuzentzen zituzten bonbetatik ihes egin nahian, Prudentzio Trabuduak familia hartu eta Gernikaldeko baserri batera joateko burubidea egin zituen. Ordurako hiru ume zituen Polixenek, hirugarrena, Unai, martxoan jaioa.

Gernikaldeko baserri hori mendian zegoen, ibarraren gainean, herria han behean ikusten zela. Bertan senar-emazteak, alaba bat eta adimen urriko seme bat bizi ziren. Gainerako semeak frentean zeuden. Baserriko bizitzak lasaitasun apur bat ekarri zien Polixene eta familiari. Gerrak segitzen zuen, Jose Mandaluniz frentean batetik bestera zebilen, baina mendialdean patxadatsuagoa zen bizitza. Hori apirilaren 26a arte. Udaberriko egun ederra

zen. Azokaren aitzakian pilota partiduak eta antolatu zituzten. Gerraren erdiko festa egun bat zen hura. Arratsaldeko hirurak aldera, sondikarrek *Alcahuete* deitzen zioten hegazkin txikia azaldu omen zen, eta baserri gainean itzulingurua egin. Harritu egin ziren, izenak adierazten duen bezala, bonbarderoei helburuak erakusten ibiltzen zen-eta hura. Ordu erdira edo, hiru hegazkin handi agertu ziren, hain behetik hegan, tripulanteen aurpegiak ere ikusi ahal izan zituztela baserrian zeudenek. Bat-batean, herriaren parean, hara non askatzen dituzten bonbak eta etorritako tokitik alde egiten duten. Minutu gutxira han datoz berriro. Oraingoan, bonbak bota eta gero, beste buelta bat eman zuten Gernika gainean, herritik kanporantz ihesi zihoan jendea metrailatuz. Eta horrela arratsalde osoan. Zerua ere ilundu egin omen zen, gorantz zihoazen gar eta kearekin. Polixeneri ez zaio koadro hori ahaztu: «Dena ilun eta isilik geratu zen. Isiltasun arraro bat. Bonben eta metrailetan zarata baino gehiago, Gernikako bonbardaketaren ondoren zabaldu zen isiltasun hura geratu zait oroimenean betirako».



## *Ihesiaren zalaparta*

*S*ondikara itzulita zeudela, gau batean senarra etorri zitzaion Polixeneri, Francoren soldaduak Artebakarrara iritsi zirela eta, ihes egin beharrean zeudela esanez. Prudentzio Trabuduak alaba eta hiru bilobak hartu, baita bigarren andrea eta neskameak ere, eta Sondikako komiteak zeukan *Cadillac* beltzean Bilbora joatea lortu zuen. Bidaia hori trabaz beteta egon bazen, hortik aurrera ihesare eta gehiago zaildu zen. Frankistek Artxandatik botatzen zituzten kanoikada eta morteroen mehatxupean, Bilboko portuan zegoen *Goizeko Izarra* itsasontzia zen iheslari andanaren helburua. Han sartzea, ia ezinezkoa. Azken orduan, eskala kentzera zihoazela,



Donibane-Garazi, 1937, hiru seme-alabekin, Citadellen.

Polixenek, hartu hiru umeak, eta Daniela neskamearen laguntzaz, itsasontzira igotzea erdietsi zuen. Ekaineko egun bateko goizaldea zen Santanderrera iritsi zirenean. Hurrengo itsasontzia, *Marrakech*, gertatu zen benetako salbatzailea. Honek Bordeleraino eraman zituen. Iheslariak gero jakin zuten itsaso handian frankisten *Almirante Cervera* gerra ontziak trabaturik eduki zuela beraiena. Bordelen komite baten harrera eta laguntza jaso zuten

iheslariak; janaria eman, tren batean sartu eta geltokiz geltoki jendearen errukia piztuz, iritsi ziren Issoudan-era, Indre-ko departamenduan. Han, kuartel batean eman zieten ostatu. Hilabetera edo, lagunen bisita izan zuen bertan Polixenek: Gaizka Agirre, Eli Gallastegi eta Lezo Urreiztieta. Haien burubideei esker, egun batzuk barru Baionarantz abiatu ahal izan zen, hortik Donibane-Garazira joateko. Helmuga, beste kuartel bat, Vauban, Garaziko Citadellen. Han zeuzkan zain Sondikako ikastolako haurrak. Izan ere, Jaurlearitzak gerratik ihesi irten-dako haurrentzako egonlekua antolatu zuen bertan.

«Donibane-Garazin senide bezala hartu gintuzten –dio Polixenek–, zinez garen bezala».

Bizimodu komunitarioa zen hura, atarramendu onekoa, patxadakoa, ez balitz gerratik zetozen berri eta zurrumurruegatik. Ikasle bati, Sondikako idazkariaren semeari, albiste ikaragarria eman behar izan zion Polixenek: aita fusilatu egin ziotela. Mandalunizez ere berri hori iritsi zitzaion behin, eta gero ezeztatu. Beste Mandaluniz bat, Valentin, Joserren anaia, hura bai, hura fusilatu zuten. Zorionez, eta ustekabeaz, azaldu zitzaion senarra Polixeneri Donibane-Garazira, nola eta requete-z jantzita. Beste bi lagun zetozen berekin, bata italiarren uniformeaz eta bestea legiokoaz. Horrela lortu zuten frankistengandik ihes egitea eta mugalarien laguntzaz Donibane-Garazira iristea.



Citadellen, Sondikako taldearekin.

## **Gerra batetik bestera**

Gerra amaitzean, 1939ko apirilaren 1ean, Donibane-Garaziko koloniari ere bukaera iritsi zitzaion. Ordurako Jose Mandaluniz Lausanan aldi bat egin zen, futbol jokalaria modura beti ere, eta hurrena Rouen-go ekiporako fitxatu zuten. Horrela bada, familia osoa hartu eta hara egin zuen. Ordurako Europan giroa berotua zegoen, eta irailaren 3an, Frantziak eta Ingalaterrak Alemaniari gerra deklaratu zioten. Egun hori ezin du ahaztu Polixenek. Chamberlain eta Hitlerren arteko negoziazioak huts egin zuela jakitean, jendea kalera atera omen zen. Baita Man-

daluniz-Trabuduatarrak ere, eta Iñaki Leizaola, gero lehendakari izango zenaren anaia, hura ere familiarekin Rouen-en bizi zena. Francorengandik ihesi, Hitlerren Armadarekin topo egin zuten erbesteratuek, Frantziara alde egindako beste hainbat herrikidek bezala.

Ordurako haurdun zegoen berriro Polixene eta erditzeko garaia heldu zitzaionean, Ipar Euskal Herrira jaiste erabaki zuen, umea euskal lurraldean jaio zedin. Biarritzen *La Roseaie* izeneko ospitalea zeukan Jaurlaritzak. Han jaio zen, 1940ko martxoaren 28an, Naya, lau garren umea, ez azkena. Izan ere, 1942ko



Rouen, 1942, senarrarekin.

otsailaren 19an etorriko zen Maite, Rouen-en bertan erditua. Bonbardaketa baten ondoren hain zuzen ere. Horrelakoa zen bizitza, bonbardaketen arteko tartekak, puskak. Egoera erabat txartu eta Parisera joatea erabaki zuten arte. Han lagun askorekin egin zuten topo: Haydée Agirre, Agustin Alberro, Xabier Landaburu... Nolabaiteko euskal kolonia bat osatzen zuten guztien artean. Tarteka Lezo Urreiztietak bisita egiten zien, eta baita Iparralde nahiz Hegoaldeko beste euskaldun batzuek ere. Kontuan izan behar da Parisen Jaurilaritzaren ordezkaritza bat zegoela garai hartan, Massenet kalean hain zuzen ere. Polixenek aitortzen du Parisko egonaldia erbestealdiko aldirik atsegina izan zela. Gerraren erdian izanda ere, dibertsiorako

aukerak eskaintzen zizkien Frantziako hiriburuak. Eta halako batean, Paris askatu zutenean, gerraren amaiera ospatzeko moduan ziren. Ospatu, parranda izugarria eginez, kaltetan zehar, kantuan eta dantzan. Oraingoan ere, Polixeneren bizitzako beste une seinatu batzuetan bezala, kasualitatea, *Cadillac* bat ageri da. Marka horretakoa zen Parisko gau zoriontsu hartan batetik bestera ibiltzeko hartu zuten taxia.

Hau ez zen izan, ordea, Polixenek Bigarren Mundu Gerran ezagutu zuen une historiko bakarra. Hegoaldera ezkutuan egin zituen bi bidaietako batean, gaullista eta aliatuak Santiago zubiaz nola jabetzen ziren ikusi ahal izan zuen. Ustekabean gertakari horren lekuko izan zen.

## **Bilbo ezinezkoa**

Gerra amaitu ondoren, Britainiako Lorienteko Futbol Klubean izan zuen lana Jose Mandalunizek hiru denboralditan. Lehendik ere ezaguna zuten Britainia aldea Mandaluniz-Trabuduatarrak; Parisen bizi zirenean uda Pluguffan herriko *Kerhujen* etxaldean pasa ohi zuten, beste euskaldun batzuekin batera. Izan ere *Kerhujen*, Zabala abizeneko industriari batena, Britainiako Euskal Etxea zen nolabait, opor garaian erbesteratu askoren bilduleku.



Britainiako jantziarekin.

1950ean, gerra osteko giroa baretuxe, Bilbora itzuli ziren Mandaluniz-Trabuduatarrak, Joseri Athletic-en lana eman ziotela eta. Alameda de Urkijon betiko uste zuten etxea gogoz prestatu, familia guztia bilduta, seme-alabak Bilboko ikastetxeetan matrikulatuta... Gauzak ez ziren nahi bezala joan. Frankismoak ez zien behar bezala bizitzen uzten eta bi urte eta erdiren ondoren berriro Rouen-en ziren. Aldi baterako bakarrik ordea. Hurrengo helmuga urrutiago zegoen, Ameriketan.



Joserekin, San Mamesen, Bilbon bizi izandako tartean.



Montmagny, 1947. Lagunekin, Eguzkiñe eta Josebaren jaunartze ospakizunean.



Luisa Goiticoa kinderrean, 1954.



Maracaiboko Sabaneta gartzelan, presoen artean.

## Venezuela, bigarren aberria

Jose Mandalunizi Caracaseko *Deportivo Vasco* ekipoa entrenatzea eskaini zioten. Bera aurretik zela, poliki-poliki familia guztia harantz joan zen, Polixene 1954ko hasieran. Venezuelak petrolioaren booma bizi zuen orduan eta biztanle berriak besozabalik hartzen



zituen. Mandaluniz-Trabuduatarrak Caracasen jarri ziren hasieran bizitzen eta Maracaibon gero. Han pasako zituen Polixenek beste berrogei urte inguru, eta han errotu zen ia familia osoa.

Venezuelan Polixenek gerrarekin galdutako lanbideari heldu ahal izan zion berriro, irakaskuntzari. Caracaseko Luisa Goiticoa haur eskolan jardun zuen hasieran, eta Maracaibon berriz zenbait ikastetxe desberdinetan. Horien artean bereziena Sabanetako kartzela. Han, gaizkile handi modura kondenatuta zeudenen irakasle izan zen. Esperientzia ikaragarria, baina berak idatzietan islatuta utzi duenez, aberasgarria benetan.

Denborarekin idatzi eta argitaratzeari ere ekin zion Polixenek. Maracaiboko Panorama egunkarian dozenaka artikulu azaldu ziren. Horiek eta Deia egunkarian agertutako zenbaitzuk Zuliako Unibertsitateak *Articulos de amama* izeneko liburuan bildu zituen. Gero

Venezuelan bizitza berria hastear.



Sabino Arana Kultur Elkargoak berrargitaratu zuen liburu hau, 1991.ean eta sei urtera beste bat, *Crónicas de amama* izenburupean. Lehenengoan, bere bizipenekin nahastuta, munduaz duen ikusmoldea jaulkitzen du Polixenek, beti ere eguneroko gertakariak sortzen dizkioten hausnarketen bidez. Bigarren liburuak Venezuelara joan bitarteko

memoriak jasotzen ditu. Hortik aurrerakoak idazten segitzen du, egunen batean kaleratzeko itzaropenean. Bitartean, eta azken urteotan Euskal Herrian bizi izan arren, hurbil-hurbiletik jarraitzen ditu Venezuelako gertaerak. Han dauzka seme-alaba eta biloba gehienak. Honenbestez, euskaldun jaio zenak bere izaera *venezuelartua* ez dauka ahazteko.



## **Pasio adoretsua**

Polixene pasioz beteriko emakumea da. Hala aitortzen du bere burua. Bizitzako joan-etorri eta gorabehera guztien erdian sekula lur jo gabe, nahiz eta sinesmena behin baino gehiagotan zalantzan ibili duen. Teilhard de Charidin-en bidea aldarrikatzen du pentsamendu filosofiko eta trszendenteari dagokionez. Abertzaletasunean tinko irauten du, duela ia hirurogeita hamar urte idazten zituen oinarri berberei eutsiz, baina denboraren joanak dakarren bilakaerari muzin egin gabe. Izan ere, adinak ez dio ikuspegia kamustu, eta bere bizitzan zehar ezaugarri izan duen irekitasuna erakusten du gaur egun ere.

Zeberion bizi da, Arratian, bere seme Unairekin, itsasontzi bateko kabina modura definitzen duen etxetxoan. «Gu, hain bi daiazaleak izanik, ohituta gaude honelako toki batean bizi izaten» dio, hainbeste tokitan eta hain etxe desberdinetan bizi izan den emakumeak.

Idazten jarraitzen du, eskuz, letra handi eta argiz, tapa gogorretako koaderno handitan. Asko dauka gogoratzeko eta kontatzeko, baina iraganean gotortu gabe, egunetik egunera aberasten du bere ondarea, jakin-minak eraginda, bizitzako egun bakoitza berria eta desberdina dela dakienaren adorea.



Polixene idazten, Zeberioko etxean.

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Polixene Trabudua.*
- *Sabino Arana Kultur Elkargoa. Abertzaletasunaren Agiritegia.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.325

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.  
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1753-7  
84-457-1754-5

L.G.: VI-507/01

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística